

9. KOSTUEN EGITURA

Gure enpresa ez da egongo kostuak murriztera bideratuta, baizik eta pertsonalizazio maila handia eta hortz-arazoak prebenitzen laguntzen duen kalitate handiko produktua eskaintzera. Hau guztiaren ondorioz gure enpresa balioan oinarritutako negozio-eredua edukiko du.

Enpresa aurrera atera dadin honek ematen dituen kostuak ondo sailkatuta eta banatuta eduki behar ditugu. Gure kostu finkoak hauek izango dira, Coworking daukagun alokairua, baita lantegiarena ere bien artean kalkulatu dugu 500 euro. Oraingoz bakarrikan ordu konkretu batzuk alokatuta dauzkagu baina bere kostua guztiz finkatuta dago ez da aldagarria, gero produkzioak gora egiten badugu ordu gehiago alokatu ahalko dugu. Noski, ingenieroaren soldata kostu hauetan sartuko da ordua beti kostu berdina edukiko duelako. Baita web gunea eta app-aren hostiga multzo honetan sartuta egongo da. Gureak diren ordenagailuak erabiliko ditugu bai webgunea eta app-a kontrolatzeko bai alde teknologikoa egin ahal izateko, ereduak sortzeko, ahoaren neurriak ezartzeko... Telebistan eta sare sozialetan jarriko ditugun iragarkiak publizitate moduan baita kostu bat edukiko dute, hau zenbat minutu agertzen diren egun osoan zehar arabera izango da eta beti kostu berbera edukiko du.

Gure kostu aldagarriak hauek dira; beharko ditugun materialak edukiko ditugun salmenten arabera joango orduan ez da beti berdina kostatuko baita kalitate aldaketak badaude edo hornitzailez aldatzen badugu. Gainera lantegian egongo diren gastu energetikoak desberdinak izango dira hilabetero, batzutan produktu gehiago sortu egin beharko ditugu energia gastu altuagoa sortuz. Baita hasieran produktuaren bidalketak egiteko salmenten arabera izango da ezin izango dugu konpromisu bat ezarri kostuak beti berdina mantendu dadin nahiz eta bidalketa maiztasuna jeitsi edo igo.

Gure produktua berdina balioko du beti agian gero eta aurrerago joan merkeago saldu ahalko dugu kostuan minimizatu egingo direlako gero eta produktibitatea gora egin. Ondorioz ez dugu eskala-ekonomikorik edukiko oraingoz eta hedapen ekonomikorik ezta bakarrikan esandako produktuak ekoiztuko digu ez hainbat balio berekin.

Atal hau etengabe aztertuta eta optimizatuta izan beharko da, negozioaren errentagarritasuna eta jasagarritasuna bermatzeko. Gero eta material gehiago baina merkeagoa erosi ahalko dugu, lantegia gehiago erabilita errentabilizatuko dugu honen alokairua, aliantzak berriz egin ahal dira... Esate baterako, kostu aldagarriak finko bihurtu ahal dira denborarekin, adibidez, trasportea edo materialen salmenta kostuetan egonkortasun handiagoa, eta enpresaren finantza-emaitzak

aurreikusteko gaitasun handiagoa sortuz. Baina salmentak edo ekoizpena murrizten badira, arrisku finantzarioa handiagoa izango lirakete.